


# Nafar karia

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko urtarrilak 29 / III. urtea / 60. zenbakia

## Itzulpenaren interpretazioa

Itzultzaile, zuzentzaile eta interpretarien estatutu profesionalerako proiektua aurkeztu berri du Espainiako Elkarte Profesionalak (APETI), lanbide honetan dagoen arautegi falta konpondu asmoz. Erredakzioan parte zuzena hartu du Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartek (EIZIE), eta bertan ogibidearen betebeharrak eta eskubideak, kontsiderazio profesionala eskuratzeko baldintzak, eta modalitate bakoitzaren —itzulpena, hitzaldi-interpretaritza eta zintzeko itzulpen eta interpretaritza— zehaztasunak biltzen dira. Egun, Nafarroan, hogeitamar bat euskal itzultzaile ari da lanean, gehienbat Administrazioaren barruan. Izan ere, merkatuak ez omen du ematen —beste lurraldeetan ez bezala— enpresa pribatuak sortzeko adina lan.



Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Gaur eguneko gaztediak ez omen du ideologiarik, ezta ondoan duenarekiko elkartasuna adierazteko adorerik. Erosotasunean murgildurik ahal bada besteen kontura, bere probetxu soila ekar liezaizkioken helburuei begira patxara osoan bizi dela, diote gehienetan aspaldiko partez diruz apainduriko mundu hotzean nagusi edota nagusi izan nahiean dabiltzanek. 60 eta 70eko hamarkadetan hogeitapikutan zeuden horiek laupabost harri botatzeko gauza izan ziren agian pare bat aldiz, frankismoaren urte latzetan. Hauetariko gehienek etzuten ezta hori ere egin. 90eko hamarkada honetan guztiz fenomeno txalogarria ari da gure artean suertatzen. Militarismoaren baloreak kolokan jarri dituzte, epe laburrean, nekez eta borroka eta eginahal asko kostata, horren patxaratsu bizi ez diren gazteek.

Langabeziko jana eta etorkizun iluneko edana jaso duten gazteek nahiko indarra hartu dute halaber elkartasun eta ilusioen iturrian aurreko belaunaldiak ikutu ere egin ez zuten erakunde militarra astindu eta elikagairik gabe uzteko. Objezioa eta bereziki intsumisioaren aldeko mugimendu kementsu eta zorionez, geroz eta zabalduagoa dugun honek harro egoteko aski arrazoi eman dit. Euskal Herria dugu egun Europa osoan, militarismoaren aurka kopuru gehien ematen dituen herria. Baita, zalan-zarik gabe, horrexegatik, estatuaren aldetik zapalkuntzarik handiena jasaten ari dena. Pablo Etxegarai eta Fermin San Roman espetxeraturik ditugu eta bigarrena kartzelara sartzean, urduritasun eta haserre moduak erruz erakutsi ditu etika militarren defendatzaile sutsu izan ohi diren horietariko batek.

Ez dut uste baikorregi azalduko naizenik, militarismoaren aurka, euskal gizarte honetan, sortu den mugimendua atzerazina dela esaten badut. Epailen erabakiek, polizien tiroek, politikarien immobilismoak ezin dioTe uholde honi aterabiderik jarri. Aipatu beharra daukat, hala ere, kezkarri egiten zaidala mugimenduaren barnean gertatu berri den jokatibide diskriminatzailea. Subiza abokatuak argitu beharko liguke ia zergatik eman dion uko Javier Aiestaran alkate bakaikuarrari defenditzeari. Nik uste nuen intsumisio guztiak kategori berekoak zirela nahiz eta, normala den bezala, ideoloji ezberdinekoak izan. Subizaren jokarrek ez dio antimilitarismoaren batasunari laguntasunik ekarriko eta kezka larria sortu du kontzientzi-objezioaren garbitasunean sinisten dugunongan.

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Mara Reguilon** artistaren lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodeznoko Kontea kalean duen aretoan. Bilbon jaiotako artista honen obra ikusteko lanegunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etarako orduetgia dute. Otsailaren 21a arte iraungo du.

**Natxo Barberena** artistaren lanak Iruñeko Cafe-Galeria Lacavan ikus daitezke, otsailaren 7a arte. Erakusketa zabalik dago egun osoan.

### IKASTAROAK



**Fondoko eski ikastaroak** egin daitezke Aralarren abenduaren letik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Orduetgia 9.30etatik 13.30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatan, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materialik 6.700 pezetatan eta materialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.

**Eski alpino** ikastaroak antolatzen ditu Nafarroa Kirol Elkar-teak, larunbata eta igandetan, Candanchun. Ikastaro hauek hilabete osoa iraungo dute. Bazki-

### ERRAN DUTE

**Polizari harriak bota dietenak ez datoz bat intsumisioaren estrategiarekin, hau da, indarkeriaren aurkakoa».**

MOC-KEM mugimendua

**«Onartezinak diren baldintza hauetan lanegitea ezinezkoa da».**

Intzutegiko magistratuak

**«Arnak utziz gero, demokrazia eskuzabala izango da».**

**Pedro Ruiz de Alegria**  
Espainiako Gobernuaren ordezkarria

**«Ura Nafarroak duen aberastasuna da, baina Estatuak agintzen du gure orde».**

**Maurizio Olite**  
HBko parlamentaria

## Kodesko mendizerratik


Igande honetan, berriro ere, Napar Mendizale Federakundeak, Xabier Goñiren bitartez antolatzen duen ateraldia aukeratu dugu. Oraingoan Kodesko mendizerratik izango da ibilbidea, Nafarroan mendebalderuntz aurkitu dezakegun azkena.

Txangoa zeharkaldi modura dago prestatuta: Nazar-Costalera (1.222 m.)-Torres del Rio. Nazarreraino autobusez joango gara, eta hortik hasiko da ibilaldia. Nazar Nafarroako erdialdean dago, Lizarrerrian.

Herrixka bat da, inguruan daudden antzekoa. Bidea berehala hasten da igotzen, artedien artean, eta goian harria topatzen dugu. Lepo batera iritsita, mendizerraren altuera gureganatuko dugu, eta ondoren ekialdera joko dugu, Costalera tontorra (1.222 m.) lortzeko.

Ondoren, mendebaldeko bidea hartuko dugu mendizerra guztia zeharkatzeko, eta Ioar gailurra ere

deentzat 8.500 pezetan emango dituzte, eta besteentzat, 9.500 pezetatan. Era berean, fondoko eski ikastaroa ere eskaintzen dute, Belagoan, Erronkariko Eski Eskolaren laguntzarekin.



gaitutuko dugu. Hortik Kodesko Ama Birjinara jeitsiko gara, eta ondoren Torres del Riora. Bertatik Logroño ikusten da, eta ipa-

rraldean Lokitz eta Urbasa. Eguraldi ona izanez gero, Pirinioak ere ikus ditzakegu, eta baita Bardeak ere.

eta arratsaldez emango dituzte, autodefensakoa, berriz, arratsaldez bakarrik. Izena emateko Andreak Navarria kaleko 15. zenbakian duen egoitzara jo behar da.

gero eta zabalduago dagoen gaitutasun berri honen inguruan arituko da Koldo Martinez medikua, arratsaldeko 8.00etan Elkar-teko egoitzan.

### HITZALDIAK



**IHESari** buruzko hitzaldi bat antolatu du gaurko, urtarrilak 29, Zaldiko Maldiko elkarteak. XX. mendearen bukaeran agertu eta

### BESTELAKOAK



**'Everest: Udazkenaren gau baten ametsa'** izenburupean, diapositiba emanaldia izango da gaur, urtarrilak 29, Nafarroa Kirol Elkar-teak antolatutik. Mikel

### MUSIKA



**Patagonia, MCD** eta EH Sukarra musika taldeak arituko dira bihar, urtarrilak 30, Lesakako Pilotalekuan. Kontzertua gaueko 21.30etan izanen da.

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Fermin San Roman



Intsumisioa

#### M. Lopez Mazuelas



PSNko agintaria

#### Ruben Beloki



Pilotaria

**E**paiketari urtebeteko zigorra ezarri zioten, eta kartzelara ez joateko aukera bazuen, baldintzapeko askatasuna onartuz. Baina berak, legeak ematen duen bide hau ez onartzea erabaki zuen, «beste intsumisioekin elkartasuna adierazteko, batez ere Pablo Etxegarai kartzelan dagoenarekin». Esan eta egin. Hilabete etxetik kanpo egon ondoren, Polizia atzetik baitzuen, borondatez kartzelan sartzea erabaki eta horrela egin zuen pasa den asteartean. Berarekin batera, mila lagun inguru manifestazioan bildu ziren. Dagoeneko badira bi intsumisio Iruñeko kartzelan.

**S**ozialisten arazoak ez dira Sbu katzen. Aste honetan, Barañaingo zinegotzi sozialistek Lopez Mazuelas PSNko Antolakuntza Idazkariaren dimisioa eskatu zuten, honek «Clavero alkatearen maila berean jarri digulako». Hasieran, alkatearen dimisioa eskatu zuten, baina PSNko exekutiba bildu eta gero zinegotzi guztiek ere dimititu egin behar zutela erabaki zuen. Orduan eskatu zuten Barañaingo sozialistek Manuel Lopez Mazuelasen dimisioa. Gauzak airean daude, eta egun hauetako bileran konponbidea aurkitu beharko dute.

**P**ublizitatearekin arazo ugari egon arren, jokatu zen pasa den igandean bigarren mailako eskuz banakako txapelketa, eta erraz aski irabazi zuen Ruben Belokik, Irazola bizkaitarra hamarrean utzi baitzuen. Hamazortzi urteko napar honek lortu du, garaipen honekin, lehen mailako eskuz banakako txapelketan parte hartzeko bidea. Orain, pilotari handiekin neurtuko da, odol berria betiko jokalariren aurka. Binakako txapelketan ere parte hartuko du, beste pilotari gazte batekin, Patxi Eugirekin. Polita izango da ikustea noraino iristeko gauza izango diren.

Reparazek zuzenduko du eta arratsaldeko 8.00etan izanen da.

**Urbasa, Andia eta Entziari** buruzko diapositiba emanaldiak antolatu ditu Sakanako Kirol Batzordeak, eta bailarako herri desberdinetan eskainiko dituzte. Gaur, urtarrilak 29, Uhart-Arakileko ikastetxean izanen da, arratsaldeko 3.30etan, gaztelaniaz. Mikel Nazabalek zuzenduko du.

### MENDI ATERALDIAK



**Usategieta-Ezkurra** mendiak zeharkatzeko aukera dago igande honetan, urtarrilak 31, Nafarroa Kirol Elkar-teak antolatutik. Goiz goizez atera eta egun osoz mendietan barna emateko aukera ematen dute.

**Toloño** Arabako mendia ezagutzeko aukera ematen du aste-buru honetan Sakanako Mendizaleen Elkarteak, datorren igandeak, urtarrilak 31, mendi ateraldi bat antolatu baitu. Arduraduna, Altsasuko Mikel Ramos izanen da.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



### Arbizu

# Sakanako idazle gazteak

ALBERTO BARANDIARAN / ARBIZU

Sakanakoak dira biak, eta 17na urte dituzte. Idaztea dute zaletasuna, baina batak olerkia eta bertsoak ditu gustukoak, eta besteak ipuinak nahiago. Joan Mari Irigoien eta Bernardo Atxaga maite dituzte irakurtzeko, eta 'Babilonia' ezinbesteko liburua zaie. Juanjo Olasagarre eskualdekidea ezagutzen dute, baina batek ez du bere poesia irakurri, eta besteari zail samarra egin zitzaion liburua. Txaro Ondarra eta Mikel Reparaz. Bakaikukoa eta arbizuarra. Idazle gazteak biak. Idazle saridunak.

Ondarrari ikastolan piztu zitzaion idazteko zaletasuna, Lontxo Aburuzak ematen zituen bertso eskolaren bitartez. Hortik bertsoei ekin zien eta gaur arte gorde ditu ohitura. «Ipuinak gutxiago gustatzen zaizkit, baina

bertsoak eta olerkiak, asko. Etxean zerbait daukat egina, baina ez diot inori erakusten, ezta lagunei ere». Ez duela asko irakurtzen aitortu du, eta erositako azkena, mesanotzekoa, Jon Miranderen 'Haur besoetakoa' du. Hala ere, erdarazko *best-seller* zerbait ere irakurtzen du. Hori bai, «dudarik gabe», Irigoienen 'Babilonia' liburua maite du bereziki. «Liburu zoragarria da».

Mikel Reparaz duela lau urte atxiki zitzaion idazteari, institu-

tuatu sartu zenean, eta franko idazteko ohitura dauka. «Idazten dudana lehiaketarako gordetzen dut, eta zerbait ateratzen bada, aurkezten dut». Arbizuaren honek izugarriko ahalmena erakutsi du orain arte horretarako, aurkeztu den lehiaketa guztietan —Bilboko Azkue saria, Iruñeko Udalaren ipuin lehiaketa, Nafarroako Diputaziokoa—, sariren bat atera baitu. Ondarrarekin batera jaso duen azkena, Sakanako Mankomunitateak antolatutakoa.

**B**iek gai beretsuak erabiltzen dituzte idaztera jartzen direnean: baserriak, aminen kontu zaharrak, lamiak... «Gai politak dira eta egiazkoak ez badira ere, badute oinarri bat».

Eta hala ere, biek gai beretsuak erabiltzen dituzte idaztera jartzen direnean. Baserriak, aminen kontu zaharrak, lamiak... «Gai politak dira» dio Ondarrak, «eta egiazkoak ez badira ere, badute oinarri bat: aminari aditutakoa edo». «Nik uste dut» gaineratu du Reparazek, «herriko jendeari aditutako gauza asko sartzen ditudala ipuinetan,

baina horretaz gain ere, egungo giroaz eta gazteez zerbait idatzi dut. Ez zazula pentsa bakarrik baserriko gaiak ikutzen ditugula!».

Ez dute buruan idazleak izatea «hasi basterik ez dugu egin eta!», baina gustatuko litzaieke, bai horixe, noizbait libururen bat kaleratu ikustea. «Oso polita litzateke». Mikelek kazetaritza egingo du heldu den urtean, eta Txarok zientzietako bidea hartuko du. Idazteaz aparte ere musika dute



Ondarra eta Reparaz, Arbizuko plazan.

ALBERTO BARANDIARAN

atsegin biek. Txarok esku soinuak. Mikelek gitara elektrikoa.

Idazteko toki aproposan ere desberdinak dira. «Niretzako mendia da leku aproposena» azaldu du Txarok. «Bertara joan, eta poesia edo bertsoak idatzi. Ze

gozada!». Mikelek, ordea, etxean bertan ekiten dio paperari, «inspirazioa baldin badago». Hala ere, biak ados daude funtsean: «Egoerarik aproposena idazteko, triste gaudenean». Izan ere, biak poeta samarrak baitira.



**SAKANAKO** Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuak euskarazko bideoteka zerbitzua paratu berri du, ikastetxe, eskalategi, gau-eskola, elkarte, erakunde eta talde guztiendako. Bertan pelikulak, dokumentalak, eta marrazki bizidunak aurki daitezke, eta bere erabilerarako bi zonaldeetan banatuko da eskualdea. Lehendabizikoan Burunda sartuko da, hau da, Ziordia, Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku, eta bigarrenean, gairontzeko herriak: Etxarri-Aranatz, Ergoiena, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Arakil eta Irurtzun. Lehendabiziko zonaldeko interesatuek Altsasuko Herri Liburutegian eskura ditzateke bideoak, arratsaldeko 3.30etatik 9etara, eta bigarrenekoek Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzura deituz.



**BERRIOZAR**ko udalaren egoera gaineratu zaio aspaldi honetan PSN-PSOEk ohituta gauzkan krisi politikoari, eta bertako udalbatzak, pasa den asteartean, aspaldiko partez amaitu ahal izan zuen. Amaitu, baina halamoduz, oposizioak —Herri Batasuna, AMO-Batzarre eta Izquierda Unida taldeetako zinegotziak lekua utzi eta bizilagunen lekuan jarri baitziren, eta udalbatza Goardia Zibilaren babesa behar izan zuelako. Azken udalbatzetan izandako istiluak direla eta, eguerdirako deia egin zuen Alfonso Alonso alkateak, baina jende z gainezka agertu zen udaldegia. Oposizioak gogor kritikatu zuten alkatearen jarrera, eta IUko Demetrio Fernandez zinegotziak alkateak udala «berea» zela uste zuela salatu zuen. Jose Luis de Miguel HBko zinegotziaren ustetan, aldiz, Alonso bertakoa ez izateak ondorio kaltegarriak ekarri dizkio herriari, «ez baitu bertako errealitatea ezagutzen».

**IRUÑE**ko Udalaren dirulaguntza duten kultur ekitaldietarako propaganda testuak gazteleeraz idatziko dira, eta gazteleeraz gainera beste hizkuntza bat erabiltzen bada, gazteleerak, ezinbestez, lehendabiziko tokian agertu behar du. Horrela zehazten du udalaren barrutietako kultur ekitaldiak eta entitate artistikoekiko hitzarmenaren arauak, HBko udal taldeak aste honetan salatu duenez. Baldintza hauek bete ezan deagokion dirulaguntzen murrizketa edo kentzea ekarriko du.

### Zizur Nagusia


## Eliza berriko lehen harria igandean paratuko dute

A.B. / IRUÑEA

Igande honetan paratuko da Doniantzuko Esperantzaren Ama Birjinaren parrokiaren lehendabiziko harria. Orubea zela eta Udalarekin eztabaida luzea izan ondoren, azkenean baimen guztiak lortu eta era zaharretan izango da ekitaldia, harriaren azpian txanponak, idazkiak, eta eguneko egunkariak sartuko baitira. Ekitaldiak goizeko ordu batean izango du hasiera, Zirarda apezpikuak emango duen mezarekin.

Karmeldarren komentuan eta eraiki behar den Osasun Etxeen

oruben ondotik, eliza berrirako proiektua Jesus Marino Pascual arkitekto iruñeseak burututakoa da, eta Barañaingo Pakearen Plazan egun dagoenaren antzekoa da. Kupula bat da, tximinia-aren antzeko punta batekin, eta oinarriak gabekoa. Bereizitasun azpimarragarrietakoa aldarean datza. Izan ere, eliza osoa zirkularra, eta erdian aldea izango da. Jendea, beraz, bere inguruan kokatuko da. Beheko solairuan beste kaperak txikiagoak izango da, eta lehen solairuan katekesiendako aretoak. Bigarren solairuan apaizendako logelak egongo dira.



Karmeldarren ondoan eraikiko da eliza.

JOXE LACALLE

Eliza egiteko asmoa duela urte franko sortu zen, Zizur Nagusiko hirigintzak horretarako orube utzi zuenean, baina azken urte-

tan bertan nagusi izan diren azpiegitura eta hirigintza egitasmo orokorre buruzko eztabaidek ere ez zuten aparte utzi eliza.



Hizkuntz Politikako itzultzaile eta zuzentzaileek Iruñean duten bulegoan.

JOXE LACALLE

**I**tzultzaile eta interpretarien estatutu profesionalerako proiektua osatu berri du APETI Espainiako elkarteak. Bertan ere parte hartze zuzena izan du EIZIE euskal itzultzaileen elkarteak,

eta honen bidez orain arte arautu gabe zegoen iharduera finkatzea da helburua. Nafarroan euskal itzultzaile gutxi daude: gehienak administrazioan, eta hortik kanpo ateratzeko aukera handirik gabe.

## Lanbidea interpretatzen

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Estatutu profesionalaren proiektua Espainiako itzultzaile eta interpretarien Elkarte Profesionalak (APETI) burutu berri du, Espainiako Interpretarien Elkarte (AICE), Galiziako Itzultzaileen Elkarte (ATG) eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartearen (EIZIE) lankidetzarekin. Bertan itzulpena, hitzaldi-interpretari-

za eta zinpeko itzulpen eta interpretaritzaren zer diren, eta itzultzaile eta interpretariet zer esku-bide eta betebeharrak dituzten zehazten da.

Itzulpenak eta interpretaritzak munta eta garrantzi berria hartu dute azken urteotan, nazioarteko komunikazioan eta harremanetan informazio trukaketa aniztu eta zabaldu den heinean. Iharduera profesional hauek, handitu diren neurri berean, legezko

marko baten premia gorriasmatu dute, egun edonork egin baitezake itzulpen lana, inolako baldintza berezirik bete gabe.

Bestalde, hasi berriak dira kaleratzen itzulpen-interpretaritzan lehen karreradunak, eta orain arte lanbide honetan hainbat urtetan aritu diren eskubi-deak errespetatzeko beharra nabaria da. Estatutu honen arabera, itzultzailea legez onartua izateko titulua behar du izan edo zenbait

baldintza bete: itzulpeginzako goimailako tituluaren jabe izatea; itzultzaile-azterketa gauditurik izatea; edozein organismo publiko edo pribatuan hitzaldi-interpretari edo itzultzaile bezala berrehun egun gutxienez aritu izatea; edo gutxienez mila folioaren parekoa den itzulpen-kopurua argitaraturik izatea. Halaber, hitzaldi-interpretarien kontsiderazio preofesionala izango dute hitzalde-interpretaritzako titulu

goimailakoa dutenek edo ondoko baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek: nazioarteko edozein organismotan hitzaldi-interpretaritzako funtzioak betetzeko onarpen-frogak gauditurik edukitzea; hitzaldi-interpretaritzako funtzioak iraunkorki betetzen aritzea; edota berrehun egunetan aldebereko edota esanosteko interpretaritzaren lana egin dela frogatzea.

### INTERPRETARI ETA ITZULTZAILEAK

Estatutu haue-tan hiru dira jasota agertzen diren iharduerak: itzulpena, hitzaldi-interpretaritzaren eta zinpeko itzulpen eta interpretaritzaren fedemaile publikoa. Ez da inolako azalpenik, baina, itzulpen literarioarekiko, eta horrek beran aritzen diren kritika sortu ditu. Xabier Mendiguren EIZIEko buruetako eta APETIko partaidearen ustetan, ordea, zentzurik gabeko kritika da honakoa, horretan aritzen den talde txikiegia izanik ere ez baitu gogo handirik erakutsi estatutu barruan sartzeko. «Mila aldiz eman zaie aukera eztabaidan parte hartzeko, eta ez dute nahi izan. Gainera, ezin da kritikarik egin, estatutuak itzultzaile oro hartzen baititu, mota guztiak». Mendigurenen esanetan, ez dago desberdintasunik itzulpen tekniko eta literarioaren artean, «soilik testua eta estiloa baita desberdina», eta itzultzaile literarioak egoera «pribilegiatua» daudela dio. «Taldea txiki bat da, oso zaila baita egun hortik bakarrik bizitzea, eta ez dute beren egoera utzi nahi. Ez dute premiari ere estatutua izateko».

Estatutuaren proiektua 'Senes' EIZIEren aldirian aterako da luze gabe, baina oraindik prozesua luze samarra izango da.

## Egun batian pobre/urrenguan jauna

MATIAS MUJICA  
Itzultzailea

**H**ola bizitzen omen da artista euskalduna. Eta egia izaki. Iparragirrek uste baino alderdi gehiagotatik, gainera. Euskal Herrian gertatzen da beste inon baino errezago eta lasterrago jendaurreratzen dela jendea; erdal herri horietan, berriz, hamaika lan eta izkribu argitaratu behar dira komunikabideak kasu egiten hasi baino lehen. Hemen ez: hemen ezer gutxi nahikoa izaten da, eta Arestik zioen bezala, hemengo poetak bere lehen poema argitaratzearekin batera igotzen dira antologietara, eta idazleak ere lehenbiziko ipuina idatzi orduko epaimahaietan azaltzen. Izan ere hain da gure pasarella murrizta, eta jendez eskasa, eta gainera orain egunkari bat daukagunez gero, gure modelo premia ikaragarri handitu. Honez gero edozein fiskeria aski da plazagizon bihurtzeko.

Nik, egia esan, itzulpen bakarria egin dut nere denboran; nahiz eta larri askoa bera, hori bai, bi ttirik adina balio duena. Beraz EGUNKARIA-ko Nafarkaria-rako itzultzeari buruz zerbaiten eske etorri zaizkidanean, iruditu zait eskarmentu horrekin itsusi litza-ketela lezio majistralak ematea, edo itzulpenaren esperientzia mistikoaz hitz-jario has-tea. Itzultzaileak, gainera, bi klasekoak iza-

ten baitira: Prestakuntza teoriko handia dutenak, eta beraz, artikuluak betetzen espezial dakitenak, batetik, eta bestetik, jakite teoriko eskas xamarrarekin, erdi senez erdi eginahaletan lan egiten dutenak, artikulu kontu honetan baldarrago dabilzanak. Eta ni bigarrenetakoak izan. Halatan ba, uste dut hobe izango dela besterik gabe bi hitz esatea euskaldun (berri) batek zer ikasten duen 500 orrialdeko harri-mokorra euskaratzen duenean. Ilara: gauza bat baino gehiago, denak ere jakingarriak, eta segidan esango dizkizuet, *Ejenplu hori aditu faltan/inor ez dedulan galdu*.

Horren lan luze batean abiatzen dena konturatzen den lehenbiziko gauza da, benetan gaitz dela euskaldun berri batek holako obra batean behar diren errejistro guzietan jakitea hizkuntza. Estilo diskurtsibo-deskriptibotik aldaratu orduko, euskaldun berria euskaraz esateko gauza ez den makina bat gauza esan beharrean gertatzen da, bizipen eta sentimentu horiek denak erdaraz bizi baititu barrenean. Ez dut esango

emaitza nahitaez txarra denik, baina horrelakoetan, edozein hiztun normalek halako batean esango lukeena taka! idatzi beharrean, itzultzaile euskaldun berriak ikerketa eta perla biltze eta liburu arakatzeko lan nekoso eta burokratiko xamarraren buruan ezin bilatuko dio soluziorik problemari. Eta jakina, emaitzak nabari du. Beraz, holako itzulpen batek irakasten duen gauza bat da zein inportantea den euskara lehen hizkuntza dutenek, bere oinarriko esperientziak euskaraz dutenek, paper printzipala hartzea literaturan, eta haiei begira egitea lan. Bestela, esateko gogorra bada ere, gure literatura beti izango da erdaraz bizi, pentsatu eta sentitzen duen jendeak erdaraz bizi, pentsatu eta sentitu egiten duen jendearentzat egina. Eta neurri batean gaur horrela da. Franko horrela da.

Bigarren gauza bat ere ikasten da: euskara ez dela oraindik kultur hizkuntza bat erdararekin parekatzeko modukoa adierazte aberastasunean eta barrietatan. Oraindik gure hizkerak, halakoetan, sorketa parte izugarri

garrantzitsua izango du, eta sorketa horren neurria gauditzen bada, itzulpena irakurtezina izango da. Gaur jeneralean kontrakoa esaten bada ere, euskarara egiten diren itzulpenek bertsio kutsu zerbait izan behar dute, edo behintzat erdaren artekoekin baino askoz ere bertsio alderago jo behar dute. Gaur ahotan dabilen itzulpen leial hertsieraren teoria muturreraino eramanez, euskararen kasuan, testu erabat irakurtezinak sortzen dira baita itzultzaileentzat ere.

Hirugarrenik, eta beharbada arestian aipatu lantze falta eta arau falta horren ondorioz, euskal itzultzaileak beste hizkuntza batekoak ez duen askatasuna sentitzen du, eta hori alde txarra bada, alde ona ere bada, hizkuntzaren posibilitateak eta balia-ahalak oro bere esku baititu, usadioak zedarririk batera jartzen ez diola, bera ari baita orduantxe usadioa sortzen. Ez dut uste Europan beste ezin hizkuntzatan gertatzen denik hori.

Eta sinistazue, hizkuntzaren posibilitateak, oihan hondargabea iruditu zaizkit. Euskarak zenbait mendeko literatura eta lantze falta du, baina «baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu nola...».

## «Mundu ttikia eta itxia»

A.B. / IRUNEA

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak (EIZIE) parte zuzena hartu du estatutu honen erredakzio lanetan, eta Nafarroan ordezkari gutxi badi ere, bera da euskal itzultzaileak biltzen dituen elkarte bakarra. Bertan, baina, erdarazko itzultzaileengana ere zabaltzeko asmoa badago, elkarte hauek izaten ohi duten izakerari egokitzen. «Elkarte profesionalak dira honakoak —azaltzen du Xabier Mendiguren EIZIEkoak—, eta ez hizkuntzakoak. EIZIE euskal itzultzaileen elkarte bezala sortu zen bere garaian, euskarari indarra ematearren, eta hor gelditu gara. Hala ere, badugu asmoa Euskal Herrian ere gainontzeko itzultzaile gutziakin bat egiteko. Etorkizunean ireki beharko dugu elkarteak».

Nafarroan hogeitamar bat lagunek dute euskal itzulpegiaren edo interpretari-tza ogibide, eta gehienak administrazioan sartuta. Horiarik bakan batzuk baino ez dira EIZIEkoak, elkarteak eskein ditzakeen zerbitzuak beste bide batzuetatik eskuratu baitituzte. Xabier Olarra tolosarra da ba-

**B**este lurraldetan ez bezala, Nafarroan ez da benetako eskaerarik sortu itzulpegi-tzarako, eta bete-behar gehienak administrazioak berak asetzen ditu.

kan horietako bat, eta Hizkuntza Politika Zerbitzuan egiten duen lana 'Igela' argitaletxearen itzulpen literarioarekin tartekatzen du. «Hemengo itzultzaileak funtzionariak dira, eta EIZIE sortu zen argitaletxe, telebista eta abarretan lan egiten zuten jendearen eskubideak defenditzeko».

Beste hiru lurraldetan ez bezala, Nafarroan ez da sortu benetako eskaerarik itzulpegi-tzarako, eta bete-behar gehienak administrazioak berak asetzen ditu. Halaber, ez dago enpresa finkorik, eta literatura arloa oso jende gutxi lantzen du. «Merkatu ttiki-ttikia da gurea —dio Olarra— eta gainera talde oso itxia da, erdarazko itzultzaileekin, kasu, ez baita inolako harremanik».

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) itzultzaile-interpretari ikasketak paratzeko zenbait ahalegin ere izan dira, baina ezer ezean gelditu ziren azkenean. Gogoratu behar da Euskal Herrian ez dagoela horrelakorik, eta zeuden ikasketak bakarrek —Martutenen (Gipuzkoa) itzulpen literarioarako eta Gasteizen administrazioarako— aspaldian itxi zuten.

● Aspaldi ezagutu nuen Vesna hark gozatu zituen istorio pornografiko batzu kontatuko dizkizuet, irakurle kariook, nerhala eta geroagokoetan, ukan, nihaur bainazue neska hura ongienik ezagutu nuena. Aspaldi, erran bezalaxe, artean gazte nintzelarik —oraiko egunotan ez baitut neure burua sasoiak—

Oro duela hamar urte hasi zen —berak orduan sasoi oneko hogeita bi urte zuen—, hemendik urrunka, atertu ondoko ortzadarra ikus dezakezen zelaian. Vesna harako hiru morroi horiekin elkartu zen eta berekin lasterat joan. Iduri zuen lurberako neskatsa zoriontsuena; begiak urdin gori, irriñoa fresko, higikera oise me eta zangartea xalo. «Enekin izorratu nahi dine!», erran zidan komenturat bilaka etorri zitzaizkidan halakoxe nahia nehorik nehoiz agertu izan ez bailion —izan ere, hamaikato aldiz zitzaion halakorik agitu: bereganako izorratu nahia nahiz beronen ia betiereko baiezkoa—. Pelenda halakoa! «Eta hik, zer ihardetsi?», galdegin nion ihardespina sumatuz. «Baietz!». «Ez dun, ez, gaitz hire aldetik honelakoetan baiezkoare jasotzea». «Ez, arauz; aspaldi honetan, jinko-oiloa hilerokoaz baizik ez zaidan zipatzen. Egungo aukera ez dinat malapartatuko: gogozko mutil horien ezpain gordin hezei muzin? Hauxe pekatua!». «Aments, kondoirik baduna?». «Bai, bada!». «Dena den, bihar pakete bat helduko dinat Kepa medio». «Kepak ekarriko ditu? Inozo horrek? Zulatzeko gai dun, gero, ahizpa Edith. Maite omen nin eta nik kasu zipitzik egiten ez diodanez, jeloskor dinat, omen, eta baten batto zulatuko ote duen beldur nun». Kepa zelakoa guziz aldatu zen Vesnak biziki lizun bazen ere ez zuela deustxo nahi frogatu nionez geroztik. Egun, Kepa ez duzue jeloskor; maite dituen neska guziek libre ditu berekiko eta Kubatik eta aski edertua dugu Kubatik bihurtu delarik. Nik Jesuskristo honen maite ez banu, a ze nolako izorraldia egiteko zangarte zabalaldia eskainiko niokeen!

«Maite zaituztet, maite, maite zaituztet!» giro gorenean erran ziela erran zidan. «Eta Xan?», geldegin nion. «Xan ere dinat maite. Denak ditinat maite! Mutil denak! Izanez ere, likiskeriatan ezin nekatuzko xorro-bero porrokatu bainaute!». «Bergia ezarri eta elkar gainzka dzuintaz ibili nahi!». «Biziki dostatzen nine, bai!». «Ze bihotza zuen Vesnak: mutil andana bai zuen bertan gorderik, nahiz haragizkoak nahiz aldizkari pornoetan larrugorri —eta aparteko neska lotsagalduekin ekinean— ikusi eta se-

## VESNA, likiskeriatan ezin nekatuzkoa

kulan ukituko ez zituenak. Maitale sutsua neure Vesna! Nik Jaungoikoa bere gisa maiteko banu... Noiz behinkako kealdiek behar bezala eraginen balidate... Oi, Jaungoikoa, zenbateraino gutiziatzen dudan bere... hire —barka— musukatzea bihotz ondoko mutur tentetu honetan-txe!... «Lizunkeria dinat, hain xuxen gaztetandikako grina eta irritsa», agertu zidan egonean geundelarik konfidantzazko bilakatu nintzaion batean.

«Behorak bezain giri nindine, lizunkeriazko giro aisit samurrean, lizunkeriazko older lotsagalduaren baitan!». Bertzorduko lomenturat bildu zen prostituzioneari utziriko neska bat solastatu zitzaizkidan gisan solastatu zitzaizkidan Vesna. Garai hartako neska hura puta ez eta kontatu zidan nola maiz bizpahiru mutilekin xuntatu eta hor gairi izorratzerat joaten ziren, «lizun eta xeratsu» izorratzerat.

«Bateri begi zoiharrak biziki atsegin gertatu zaizkion; bertzei aluaren leuntasun bilogabea». «Biloak kendu dituna?». «Zangartekoak, alugainekoak ez, ordea. Triangeluari atxiki nahi! Baina zangartea ahalik eta araztena, txukunena nahi dinat mutilek nolani lohi diezadaten». «Ahizuriaz». «Ahizuriaz zein tuaz zein... txizaz... zein musukako lerdeez ihaurrituz». «Mmm! Musukako lerdea, ez-painkako habuina... Nik, batzutan, Jesusen begitartea esertzen dinat hankartean musuka nazan... Baina, zurezko iduria bertzerik ez dun, zorigaitzez, eta fede osoa para behar dinat musuka ari zaidala neure buruari sinestazazteko... Fedea, hauxe zaila! Ezta? Fedea joan hintuen gurikeriazko mundurat ustez eta bertan izgarriko gozamenarekin xuntatu behar hintzen eta bete-betea hintzen xuntatu, xuntatu ere. Federik gabe, nola erdiets hezakeen likiskeriazko xedea? Ez ahal! Fedea... neurea Jinkoarenanatekoa, heurea atseginezko pekaturatekoa!».

Goitixeago adierazi bezala, Vesnak aluaren inguruko ilaia moztu zuen, baina sabelpekoa utzi «maiteminduko naizenek orok elkarrekin mozt diezadaten». «Halatan, amore emanen dun, noizbait». «Batek bazia-kin! Lizunkeriaren gozatzeko irrika asetzen dudaino, maitasunari kasurik ez». «Maitemintzea aipatu dun lehenxeago». «Nere solasa dun, nolabait erran». «Maitasuna —zioen orduan— babesa nahi dutenendako dun; itsuendako, ez baitute bertsona bakar bat ikusten; jeloskor eta posesibo jokatzan segitu nahi dutenendako... Eta nik ez dinat maite edo maitale bakar bat nahi, ez dinat gisa horretako babesik nahi, jeloskor eta posesibo jokatu nahi ez!...

Eta nahia den aldetik, ez dinat egundaino erdietsi. Erdietsiko, bai alajaina!».


Sotila nuen Vesna, Vesna plazenta. Guziz. Guzizko lizunkoi. «Geroko lo lasaian Natura sendituko huen, ezta?». «Lorik ez, baina. Beren gorputz lireinetan nere izerdi osoa zirritatuaz, beren izorratzeari ekin zionat. Loriatsu zaidan agitu! Ongi hezi gorputzak nihaurek ezin hobeki haztatu, ezpainkatu, milikatu eta lohituak izan ditun!... A, ahizpa Edith!... Irentsi ditinat arras, arras zitienat!... Barneratzerik utzi ez eta beren sofrikarioaren baitan edan zitienat dzarrastada apartak!... Perfekt ari izan gitun, ahizpa!...». Goien gradoko gozamenak

astindu zuen gorputz adar guzietan. Besoak elektrizatuturik izan bailiran; zangartea, aske, biluzkiro agerika aske. Horreur! A, ze nolakoa! «Gu naharoki kurritzen gitun, baina nihaur ari haizen bezalaxe... oi, ez!... Nehoiz ez!». Morroi batek erran omen zion. Ooiii!... Zorion zeuei, Jesusekin ihauska iharduki zenuten emazteki guzioi haragitsu, izan, bazeino ezagutu zenuten horiei... Honen zapartirringarria! Iduri bat baizik ez dut maite: hartu, masailataratu, sentitu eta beti hotz; bularretarat erakarri, tartean ezarri eta ez dio ezeini musurik ematen. Zilborra milikatzen ahalko balit, sikira! Oi, garai hartan bizi izan baninduzue... Zuen ondolik Jesusekin, Jesus haragitsuarekin, gozatu eta sufritu zuen berarekin... Baina, XX. mendearan akabantzan nago... kontserbartearen eta... atso!

«Ahizpa Edith, zer deritzan?». «Bo...». Laket zitzaizkidan kontatu izana uste osoa ene baitan paratzeaz gain, erlijioeak ematen ez zidan arlo horrezaz janzten ari nintzelakoz. Abeska gizazalea —mutilzalea, hobe erran— Vesna. Kuttuna, ene eta gozatu zuten mutilen kuttuna. Oi, haragizko bekatuaren gibelondo ahul ezia izoraki-deen arrimukoa!

Ene bada! Berandutu egin zait. Hamar minutu pasa eta kifrofanorat beharko naiz: egun, bertze bihotz bat ekarriko dute eri baten biziarazteko. Atzokoak paratuko ote dio? Ez zegoen gaizki.

Anestesista birritan harrapatu nuen adigalkor, izan ere, zirujaua sasoi onean baita. «Beha honen ahoa ezen ez haren bularrak, to». «O! Barkatu. Nerhalaxe, sor Edith!». Ebakuntza, biziki ontsa. Ea egungoa.



Administrazioan daudenez gain, itzultzaile gutxi ari dira Nafarroan. J. L.

## Gazteendako Zokoa

## Belatz handia

*Falco peregrinus*  
Ehizarako franko erabilia  
Harkaitzak gustuko  
Lurralde osoan



## Ehiztari aparta

Ehizarako beti harrapakari moduan erabili izana —Erdi Aroan franko zabaldua zen ohitura Europa osoan—, ez da kasualitate hutsa, belatz handia aparta baita hegan. Ohitura hori izan da, hain zuzen ere, egun duen egoera zailaren sortzailetako bat.

Nafarroan oraindik herri askotan ikus daiteke, beti zelatan eta erne. Erraz nabarmentzen da lepoaldean duen kolore txuriari esker, zenbait marra beltz tartekatutik. Oihu bizi-biziak botatzen ditu udaberri aldera, eta oso ikusgarria da ehizarako duen estrategia. Lehendabiziz, zirkuluak egiten ditu, altura hartu arte eta ondoren, zerbait ikusiz gero, behera egiten du ziztu bizian, harrapaketa hegaldian egiteko. Hain ehiztari aparta, ezen bere pisua —kilo batetik behera— baino askoz handiagoa duten hegaztiak harrapa baititzake.

Beti harkaitz zailenetan paratzen ditu kabiak, eta horretarako dauden zulotoak aprobetxatzen ditu. Nafarroan ale ugari aurki daitezke, ondoko lurraldeekin alderatuz gero, eta 70 bat izanen dira aisa.



## IOSU ALFARO

Ni Pirinioetako elurtegi batean jaioa naiz, udaberrian. Oroitzen naiz, egun hartan, udaberriko egun zoragarri batean, elurpetik atera nintzela ur gazteen indarra eta gogoarekin. Egund hartan harritartean, saltoka, mendia jeitsi nuen gurguraia polit batekin. Errekatxo bat besterik ez nintzen baina beste lagun batzuk biltzen joan ginene mendiko basoetarako lasterketa hartan.

Azkenean pagadi ilun batera ailegatu nintzen, hango lasaitasuna eranskorra zen eta txorien txorrotxoak entzuteko nire lasterketa geldituz joan nintzen. Zuhaitzen kimuak irekitzen ziren, adarretan txantxan-gorria zegoen lagunei deika bere txio ederrez. Pagoak lurrean tinko sartuak, hosto iharrak lurrean dantzan haizeak mugituta, hegaluzeak nere uretan, bapatean murgilduz...

Pagadian oso ongi nengoen,

## Lasterketa

lasai, paisaiari begiratzuz, baina gero eta handiago nintzen, handitzen bait nihoan.

Egun batean pagadiak giza lurrei eman zien lekua, guk ibaiok gehien gorrotatzen du-

**P**aisaia nahiko polita zen: galburuak hori-horiak, haizeak kulunkatuak, olatuak bezala... Olatuez hitz egiteak tristura dakar beti, batez ere guretzat, ibaiontzat.

gun lurra, eta hartan hiri bat zegoen nire ondoan, beti bezala! Hango animaliak ez dira pagadietako oreinak bezalakoak, ez dira baketsuak, ulergaitzak dira! Hiritar animalia hauek nere

gorpua banatu zuten lehenago, gero zikinkeria pilo bat eman zidaten, eta nere amurra in maiteak eta nere txipak hil ziren.

Bakar-bakarrik geratu nintzen eta, gaixorik, biraka eta bueltaka nenbilen erdi hilik. Azkenean denbora pasatu eta beste lagun garbi baten laguntzaz sendatu nintzen.

Paisaia nahiko polita zen: galburuak hori-horiak, haizeak kulunkatuak, olatuak bezala... Olatuez hitz egiteak tristura dakar beti, batez ere guretzat, ibaiontzat. Egund batean itsasora ailegatu naiz eta han itxoin egin beharko dut denbora luze batez, oso oso luzea, luzeegia... hil egingo naizela esan beharra dago, ozeanoaren iluntasunean zerua ere ikusi gabe, sentitu gabe, bakarrik gatzaren zapore nazkagarria sentituko dut. Hori hurrengo udaberria ailegatu arte, hodeietan eramana berriro lasterketa han hasi beharko dut!



## BASAJAUN

**H**istoriak, tamalez, badu errepikapena, edo, hobeto esanda, barkatu, errepikatu egiten dute. Eta betikoak dira, beren temaz, eta hauteskudeetatik ateratzeagatik, herriaren baimena dutela uste dutenak. Zertarako aukeratu dituzte? Zertarako? Nafarroako Gobernua egun dauden interesak defenditzeko? Madrilekoak defenditzeko? Zertarako jokatzan dute jendearekin? Zergatik esaten duzue Nafarroako interesak defenditzen dituzuela, besteen interesak defenditzen dituzunean? Izan ere, nafarren interesak defenditzea ingurugiroa eta hemengo lurra eta kultura defenditzea baita.

Riaño berri batez ari gara, sufrimenduz, oinazez eta minez. 1985ean, Itoizko urtegiaren kontrako koordinakundearekin jaio zen borroka berriaz. 'Urtegiakeriak' (gaitz bitxi eta ulertezina, gaur egungo 'demokraziak' frankismotik jasotakoa) sortutako proiektu erraldoi eta itxuragabekoaz.

Proiektu honetan soberan daude neurriak, hain handia eta izugarria baita berez, soberan dauden merkantilismoak eta losintxa faltsuak, ajo-labako eta koldarrak baitira. Itoizko urtegiaren urak ez du hornituko Nafarroako Ubidea, baizik eta nafarrak ez diren beste herriak —haien kontra deus ez izanda ere, horrek ez du zuzen, are gutxiago justifikatzeko bihurtzen—.

Izan ere, alternatiba ekologikoak badaude, eta baita gatazkei eman beharreko irtenbideak, elkarrizketan oinarriturik. Orain da garaia. Inork ez dezala atzera egin behin kaltea egin ondoren. Badaude adibideak, egin ezazue zuek ere, paratu itzazue bideak. Alli, politikari ona zara, nafar ona ere zarela erakutsi, eta zure hitza bete ezazu.

## Jenero Xumekoak


## Etxepare baletor

**E**txepare baletor, bere elizmutila nintzateke. Saten zuriko gauetan barraskilotara joanen ginateke. Motxaleneko Margarita Petreneko Mattinekin kausitaren gure kasualitatez. Gabon Margarita andrea. Gabon Mattin jauna. Ederki. Bagoaz barraskilotara. Barraskilotara gauetz? Hori ez da posible, Etxepare erretorea. Motxaleneko Margaritaren bihotzean pittin bat maitasunik aurkitzea bezain posible, Mattin jauna. Baina Etxepare erretoreak zer daki emakumez? Mattin, denek dakitena, Motxaleneko Margaritaren bihotza harrizkoa dela.

JEREMIAS ERRO

## KAZKARROAN

## HITZ GURUTZATUAK



**EZKER-ESKUI:** 1.- ... egin, trebezia osoz egin. 2.- Haizen hori. Ipar Euskal Herriko eskualdea. 3.- Mehea. Interjekzioa. 4.- Noka, naiz. Erregeek buru gainean daramaten zera. 5.- Kripton. Nazio Batuk. 6.- Zareten horiek. Latinez, berdin. 7.- Alderantziz, lutezioa. Aldamenera. 8.- Tankera. Ezeme. 9.- Atearen kanpoaldeak.

**GOTIK-BEHERA:** 1.- Toki hartan. Zaren horrek. 2.- Miraria. 3.- Lehenengoa. Geure. 4.- Bizkaieraz, igo. Kabuz. 5.- Saldu aditzaren infinitibo. Lurralde. 6.- Pluralean, oinarritzko edaria. Ur korronte. 7.- Errepikatuz, gorotza. Ongi. Bokala. 8.- Izerdia erraz botatzen dutenak. 9.- Arnas ezak hil. Errepikatuz, zurrumuru.

## Zaharrak berri

*Horrek ez du bere etxea harrikerituko.*

Etxea maite duenaz esaten da.

Mezkiritz

Farmazian:  
—Azeltisulfametosipiradizina pakete bat nahiko nuke.  
—Aspirina, ezta?  
—Ah, bai! ez nuen izena gogoratzen.

## Bizi Bizian

**D**uela bederatzi urte kezka berak elkartu zuen Nafarroako hainbat historialari. Erresuma zaharreko azken hiru mendeotako historian somatzen zuten hutsunea bete nahian, ikuspegi berritzaile eta kritikoaren bidez, Geronimo de Uztariz Institutua sortu zen. Ohizko

historiak ukitzen ez zituen gaiak jorratzeak zuen lehentasuna, eta helburu hori ahazteke, gaur egun aurrean duten erronka Institutuaren definizioa lortzea dela uste Emilio Majuelok, «ez eztabaida ixteko, ordea, eztabaida gehiago sortzeko baizik».

# Historialari kritikoaren istorioa

A. UNANUE / IRUNEA

Majueloren irudiko, egoitza San Nikolas kalean duen erakundeak ardatz berriak behar ditu, teoriaren zein metodoaren alde-rik: «Besteek baztertutako gaiak lantzea ez da aski historia ona egiteko. Historia aurrerakoia egin nahi dugu, baina zer da hori? Galdera hauxe da aurrerantzean erantzun beharko duguna».

Egin beharrekoa latza bada, ez

da gutxiago orain arte egin dutena. Institutua sortu zenean, Nafarroako Unibertsitate pribatua besterik ez zegoen. Gainera, Majuelok gogorarazi duenez, Nafarroako historiak ezer gutxi irakasten zen han. Basamortu horretan hasi zuten errenta eta badirudi uzta ona jaso dutela. Sortu eta urtebetera, 1985. urtean, egin zuten Kongresuak ehun historialari inguru bildu zuen. Bertan izan ziren Tuñon de Lara, Antonio Elorza, Miguel Artola eta ospe handiko beste hainbat aditu. Orduz gero, «gauza pila bat egin dugu, agian gizartean merezitako islada izan ez badute ere», Majueloren esanetan.

Lorpen handienetakoa, bere iritziz, talde ikertzaileen eraketa izan da. Industria, lurraren banaketa... arlo berezitu- tuetan aritu dira ikertzaile gazteak. Izan ere, historialari gazteei lehen esperientzia eskaini ahal izatea izan da elkartearen helburuetako bat.

Horrela, 80ko hamarkadako Euskal Herriko historiari buruzko ikastaroa hasi zen iaz eta aurrean ere jarraipena izango du. Ikertzaile gazteen prestakuntzak badu bere alde goibela, ikerketa lanarekin batera beka bukatzen dela alegia, eta sarritan arlo hori lantzen segitzeko aukera ere bai. Geronimo de Uztariz Institu-

tuak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jasotzen du, Vianako Printzea erakundearen bitartez, baina gero eta diru gutxiago iristen omen zaie. Urtetik urtera talde kopurua gora doa, baina dirulaguntzak ez dira maila berean hazten. Ondorioz, talde bakoitzari kopuru murriztagoa dago. Historialariaren iritziz, Vianako Printzeak diru gehiago eskatu beharko lioke Gobernuari, «krisia egon arren sosen banaketa

beste modu batean egin daiteke eta, baina ez du horretarako borondateirik». Eta diru gehiago ez dagoen bitartean, dagoena banatzeko orduan talde ezberdinen lana baloratu beharko litzatekeela dio, «ezin baita 'kafesnea denentzat' politikarekin segitu».

Majueloren ustez, historia gaur egun baino maiteagoa zen duela hamabi urte: «Historiak bere funtzio soziala betetzen du, baina badirudi orain historia ez dela hain garrantzitsua hor dagoen boterea legitimatzeko. Hori dela eta, gero eta kasu gutxiago egiten zaigu».


Hala ere, ez dute etsi. Joan zen astean Institutuaren seigarren eta zazpigarren buletinak biltzen dituen ale bikoitza aurkeztu zuten. Era berean, iaz lau libururu, «garrantzi handikoak», kaleratu zituzten erakunde-ko ki-deek. Liburute- gia, txikia izan arren, lanerako tresnarik prezia- tuena dute, izerdi asko kostatzen dira.

zai- e nahi zuten bezain bilduma espezializatua lortzea.

Aipatzekoa da, halaber, Institutuan aritutako historialariak kanpoko unibertsitateetatik deitu izan dituztela lan egiteko. Beraz, eta Majuelori kasu gutxi egiten dietela iruditzen arren, Geronimo de Uztarizen oihartzuna nonbait aditzen dela esan nahi du horrek.

**I**nstitutua sortu eta urtebetera, 1985. urtean, egin zuten Kongresuak ehun historialari inguru bildu zuen: bertan izan ziren Tuñon de Lara, Antonio Elorza, Miguel Artola eta beste.

**H**istoriak bere funtzio soziala betetzen du, baina badirudi orain historia ez dela hain garrantzitsua boterea legitimatzeko. Hori dela eta, gero eta kasu gutxiago egiten zaigu».



## Ramon Goñiren guda egunkaria

IRUNEA

Geronimo de Uztariz Institutuak kaleratu berri duen azken ale bikoitzean Ramon Goñiren guda egunkaria eman du argitara Iosu Chuecak. Goñi, 1893an jaioa, oso gazte sartu zen Euzko Alderdi Jeltzalean. 1936ko altxamendua gertatu zenean, berriz, alderdi utzi eta faxisten aldean borrokatzea erabaki zuen. Chuecak jasotako egunkariak 1936ko abuztutik 1937ko maiatza bitarteko gorabeherak azaltzen ditu. Hona hemen gerraren gordintasuna agertzen duen pasarte bat:

«Hemen ikusten dugu gerraren alde mingarria. Oronozeko egonaldian, eta are gehiago Le-

karoze-koan, frontean zaurituta-koak zer nola iristen diren ikusi ahal izan dugu. Oinazea eta sufrimendua beraien aurpegietan isladaturik. Gaur legionario bat, Kaparrosoko postuko goardia zibil kaboa eta Jalon kapitaina hil dira. Azken honen emazteari Logroñora deitu eta etorri da. Senarraren berri eskatzean, haren antsia somatu dut. Gurasoek larri dagoela esan diote, albiste tristerako prestatu nahian. Ikustea eskatu du, baina ebakuntza egiten ari zaiola erantzun diote.

Azkenean errealitate tristea aitortu behar izan dute: ebakuntza hil egin dela esan diote. Kaparera lagundu dugu. Senarraren gorpua ikustean, besarkatu egin

du. Denok hunkitu gaitu.

Eritetxera heldutako beste batek, Artaxonako 19. urteko re- keteak bere amari deitu dio eta negarrez ari da, bera belazako haur bati dagokion moduan. Beste bat odola botatzen ari da goitik eta galdeketa bertan behera utzi behar izan dugu. 17. urteko gazte bati metraila gorriak bi zangoak eramanez dizkio eta kantuan segitzen du pozik. Oronozko tifus kasuren bat dago. Elizondon gazte bat zoroetxera eramango dute bihar; ez zituen gure galderak erantzun; egun osoa alaraka ematen du eta hil nazatela! hil nazatela! oihukatzen du.

Hauxe da gerra bere basakeria gordinean».

## Jose Luis Mendoza

..... Irakaslea

# «Dirua baino ausardia behar dugu»

ANA UNANUE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zertarako balio du edo balio beharko luke hizkuntz politikarako sailak?

**JOSE LUIS MENDOZA.**— Hizkuntz politikarako zuzendaritza nagusiaren helburua izan beharko luke, beti, desagertzea. Noiz? Ba hizkuntzaren normalizazioa lortzean. Bitartean, bere bete-beharra hizkuntzaren, kasu honetan euskararen, aldeko diskriminazio positiboa egitea.

**EGUNKARIA.**— Hiru urte t'erdiko jardunaren ostean, zer lorpen eta zer hutsune azpimarratuko zenituzke?

**MENDOZA.**— Lehenengo pausua izan zen euskaldunen artean leku bat irabaztea eta erakundeetatik zerbait egitea bazegoela ikustaraztea. Apustua hori zen eta zerbait aurreratu da. Lehenik, Gobernuaren beraren euskalduntzean, nahiz eta oraindik ez dakigun noiz lortuko den euskarazko sare osoa. Hori da helburua, admistratzio elebiduna, oraingoz euskara lagileei egiten zaien eskaintza besterik ez bada ere. Beste pausu handia udaletako euskara zerbitzuena izan da, oinarrizkoa hizkuntza bertatik berreskuratzeko. Bestalde, komunikabideen arloan ere aurrera egin da, publikoetan hutsunea nabaritzen bada ere. Iniziatiba pribatua txalogarria da beti, baina Gobernuak ezin ditu bere erantzukizunak ahanzi.

**EGUNKARIA.**— Maiz aipatu izan duzu planifikazio falta dagoela hizkuntz politikan. Noren ardura da hori?

**MENDOZA.**— Plangintza bera egitea, baina hori ofizialki onartzea eta gauzatzea Gobernuaren

esku dago. Orain bidean gaude. Osasun Sailaren plangintza egin dugu, zailena, milaka langile dira eta. Asuntua da noiz onartuko duen Osasun Sailak plangintza hori aurrera eramatea.

**EGUNKARIA.**— Eta zer nolako erantzuna jasotzen dute zuen proposamenek gainontzeko sailetan eta goi mailatan?

**MENDOZA.**— Gobernuan oso kontutan hartzen gaituzte, euskara pil-pilean dago beti eta ezin dugu iluntasunean egon. Bai lehendakariarekin, bai lehendakariordearekin harremanak daude. UPNren barruan, batez ere Alli eta Sanzen aldetik, izugarriko salto kualitatiboa eman da euskararen kontuan. Euskararen arazoa ulertzeko borondatea nabaritzen zaie. Esate baterako, aurrekontuen murrizketaren ondorioz, behin-behineko kontratuak ez berritzeko agindua zegoen. Zoritxarrez, guk hogeitaz lagun genituen egoera horretan, baina lehendakariordeak horiek mantentzeko agindua eman zuen. Aurrekontuetan ere, oro har murriztu egin badira ere, guri ehun milioi gehiago eman dizkigute.

**EGUNKARIA.**— Dirulaguntzak sarri ukatu behar izan dituzue?


**MENDOZA.**— Ez, azaroa arte hemen ez zaio inori ukatu laguntza. Azaroan hasi dira murrizketak, Gobernuaren aginduz, baina agindua sail guztientzat zen. Problema dirua baino ausardia falta da. Horregatik hobe da plangintza bat izatea, orduan badakizu noraino iritsi zaitezkeen.

**EGUNKARIA.**— Euskararen Legea aldatzera doaz. Garrantzizko aldaketarik izango al da?

**MENDOZA.**— Bai. Lege txarra, murrizta... nahi duzuna izango

**E**rriberako Karkarren jaioa, izen arraroko karguaz jabetu zen orain hiru urte t'erdia Jose Luis Mendoza. Ulertzeko moduan esanda, Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikan zuzendari nagusiaren hurrena izanda. Berak dioenez, «nire kargua ez da zuzendariarena bezain politikoa, baina

hau ere konfidantzazkoa da. Sozialistekin sartu nintzen eta, haiek Gobernu uztean, nolabaiteko zubia egiteko gelditu nintzen. Hamabost hilabete eman ondoren, logikoa da zuzendariak bere konfidantzazko taldea osatzea». Ondorioz, Mendoza irakasle lanetara itzuli da.



Hiru urte t'erdia eman ditu Hizkuntz Politikan Mendozak. JOXE LACALLE

da, baina euskara sare publikoan sartu da eta orain legea aldatzeko adostasuna dago. Lege berria ez da nik nahi dudana izango, baina hobe da seguru baietz. Eremu ez euskalduna desagertzea bakarrik izugarriko pausoa izango litzaiteke, batez ere Erribera aldean sare publikoan sartzeko. Agian lehen belaunaldian ez da nabaritutako, baina joeretan igerriko da. Jarrera txarra dutenak neutraltasunera pasatzera gutxienez.

**EGUNKARIA.**— Aipatu duzun

jarrera txar hori euskaltzale eta abertzaleok eragin dugu, geurea ez zen esparruan indar handiegiz sartzegatik?

**MENDOZA.**— Ez naiz soziologoa, baina agian bai. Dena den, gaitzen ari da, Erriberan nabaritu ahal izan dut. Duela urte batzuk zaku berean sartzen zen independentzia, ETA eta euskara. Gogoeta interesatua zen, noski, eta aldatzen ari da. Eta euskaltzaleak ere diskurtsoa aldatzen ari dira, biktimismoa gain-

**E**uskaltzaleen biktimismoa gaitzen ari da, berria kolonialistena da. Horien euskararen aldeko apustua folklorikoa zen. Geure kabuz eta euskaraz bizitzeko asmoa agertu dugunean, beldurtu egin dira.

ditzen ari gara.

**EGUNKARIA.**— Baina biktimismo berria azaltzen ari da, Aurelio Arteta eta bere kordakoena. Zer dago hauen filosofiaren atzean?

**MENDOZA.**— Horri kolonialisten biktimismoa deitzen diot. Normalean hauek ez dira hain zakarrak, diskurtso filosofo-logikoa eskaintzen saiatzen dira. Gainera, beraiek betidanik euskararen alde egon direla gogorarazten digute kolonialista ilustratu hauek. Eta egia da, baina euskaldunak natibo sasibeltz moduan ibili garen bitartean. Konturatu direnean gure kabuz ibili nahi dugula, beldurtu egin dira. Agian ez zutelako espero euskarak halako indarra hartzea gizartean. Beraien apustua nahiko folklorikoa zen eta euskaraz bizi nahi duzula diozunean, akabo. Beldurra dute, zeren gizarte zibilizatu euskalduna sortzen bada, batzuek beren lekua galduko dute. Arriskutsuak dira, ez pertsonalki, gaztelaren martiriak bezala aurkeztuz saltzen duten biktimismoagatik baizik.

NOSKI  
JATOR

ZVLDI ERDA

